



Ihardunaldietan 2 eta 6 urte bitarteko haurren hezkuntza aztertuko da A. BAYO

Sei urte arteko umeen hezkuntza aztertzen hasi ziren Gasteizen

L.K.G. / GASTEIZ

Haurren Hezkuntzari buruzko I Nazioarteko Biltzarrari hasiera eman zion atzo Fernando Buesa Hezkuntza sailburua eta Gizarte Arazoetarako lehendakariordeak.

Mundu osoko ehundaka adituk bihar arte Europa Gizarte Etxean egingo dituzten ihardunaldiok sei urte arteko umeen hezkuntza edo «hezkuntza goiztiarraren abantailak» aztertuko dituzte. Juan Sanchez Espainiako Haur Eskolen Elkarte (FEDEI) lehendakariak adierazi zenez.

Bi dira haur hezkuntzan egun dau den joerak, Juan Sanchezek aipatu bezala. «Ildo tradizionalak dioenez, haurra helduz doan heinean ikasi

egiten du, baina hezkuntza goiztiarraren arabera, haurra ikasketa prozesuan sartu behar da ahalik lasterren, beti ere behartu barik», deklaratu zuen Sanchezek. FEDEIko lehendakariaren aburuz, «hezkuntza goiztiarra nagusituko da, gizarteak honelaxe eskatzen duelako». Era honetan, haurra «askoz hobeto eskolaratuko da» Sanchezen ustetan. Bi urte baino gehiagoko haurrak «haur eskola batean etxean baino hobeto» daudela frogaturik dago esan zuen eta gaur egun «haur hezkuntzak familiarrekin duen loturirik gabe zeregirik ez» dagoela erantsi zuen.

Biltzar honetan goiz nahiz arratsaldeko ihardunaldiak izango dira, eta aparteko ekintza moduan, haur talde batek bibolin eta piano kontzertua eskainiko du bihar eguerdian.

Euskara

Alderdi politikoek euskararekiko duten jarrera «axolakabea» da EHEren iritziz

Instituzioetan euskara oso gutxi erabiltzen dela salatu du taldeak

Hego Euskal Herriko instituzioek, euskararen normalizazioarako beraiek onartu eta bultzatutako legetan ez dutela sinesten adierazi du Euskal Herriko Euskaraz —EHE— taldeak. Instituzio hauek egiten duten euskararen erabilera neurtu du EHEk.

DONOSTIA

Alderdi politikoek euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEk, «alderdi politikoak izanik herriaren ordezkariak, axolagabekeria erakusten dute gure hizkuntza nazionalarekiko» zehaztu du EHEk. Era berean, instituzioak eta agintariak beraiek ezarritako legeak betetzeko ez direla gai eritzi du, euskararen normalizazioarako legeak hutsean geratu bait dira EHEren iritziz. Honen errua Espainiako Konstituzioari leporatu dio.

Urria eta azaroa bitartean erakundeek egin duten euskararen erabilera neurtu du EHEk. Epe honetan EHEko kideek oso gertutik jarraitu dituzte alderdi politiko guztiak eta herrien tipologia ere kontutan izan dute. Horrela, erabat euskaldunak, euskaldunak, ia euskaldunak, erdaldunak eta erabat erdaldunak diren herriak berezitu dituzte.

EHEkoek egindako neurketaren arabera, erabat euskaldunak diren



Bilboko Udalak agiri guztiak gaztelera hutsez plazaratzen ditu.

herrietan EAJ eta EE alderdiek % 100 egiten dute euskaraz, HBk % 94 eta EAK % 1'5. Ia euskaldunak diren herrietan euskara gehien erabiltzen duen alderdia EE da, % 93ekin. HB dator ondoren, % 75ekin. EHEkoen hitzetan, herri erdaldunetan euskara antzerako proportzioan erabiltzen dute EA, EE eta HBk, % 22 ingurukoa hain zuzen. EAJ alderdiak, ordea, euskararen erabilera urria egiten du, % 0'4 besterik ez bait du erabiltzen.

Hego Euskal Herriko hiriburuak

aintzakotzat harturik, HB da euskara gehien erabiltzen duen alderdia. Gasteizen % 30, Bilbon % 25, Iruñean % 10 eta Donostian, aldiz, % 0'72 besterik ez Hego Euskal Herriko hiribururik euskaldunena izan arren. Gainontzeko alderdiek euskara oso gutxi erabiltzen dutela salatu du EHEk. Bestalde, udalek plazaratzen dituzten agiritan euskara soilik gehien erabiltzen duena Gasteizkoa dela eritzi du EHEk, eta Bilboko Udalak % 100 gaztelera egiten duela kritikatu du.

HILDAKOAK



BIZKAIA

BILBO

Amalia Rojel Basarte, 76 urte.
Adolfo Gomez Cerezo, 73 urte.
Maria Cruz Ribera Frias, 71 urte.
Jose Castaños Marsella, 77 urte.
Juan Luis Alvarez Sanchez.

BARAKALDO

Mariano Rivas Saez, 71 urte.
Miguel Tarrío Prada, 42 urte.
Luis Ispizua Matute, 67 urte.

BERRIZ

Marcelino Eriz Aiestaran.

LEIOA

Jose Latasa Barrueta, 65 urte.

LEKEITIO

Matilde Bengoetxea Bilbao, 94 urte.

PORTUGALETE

Luis Ares de la Manuela, 81 urte.

TRAPAGARAN

Prudencia Olaso Mendilibar, 87 urte.

GIPUZKOA

DONOSTIA

Pilar Aduriz Aldasoro, 90 urte.
Maria del Carmen Martinez de Yuso Alaiza, 93 urte.
Isabel Mendizabal Lasa, 82 urte.
Gregoria Larreategi Larrañaga, 83 urte.

BILLABONA

Margarita Arregi Aldaburu, 92 urte.

DEBA

Jose Maria Ulazia Urkiri, 85 urte.

IRUN

Mamerto Sorzabal Begua, 78 urte.

LEGAZPI

Filomena Silva Zambrano, 89 urte.

ONATI

Leandro Elorza Barrena, 91 urte.

SEGURA

Gillermo Areizaga Intxausti, 49 urte.

ARABA

GASTEIZ

Manuel Melgar Perez, 86 urte.
Florencio Ruiz de Mendioketa Fernandez de la Peña, 67 urte.

NABARIDAS

Benigna Martinez Varela, 84 urte.

NAFARROA

IRUÑEA

Segundo Garcia Peña, 89 urte.
Ramon Urionaguena Urionaguena, 64 urte.

CAPARROSO

Marino Orduña Iribarren, 43 urte.

ELIZONDO

Narciso Etxebarria Agerre, 58 urte.
Euxene Goienetxe Jauregi, 80 urte.

ERRONKARI

Isabel Sarries Alkat, 86 urte.

LERIN

Juan Lopez Lorente, 78 urte.

MIRANDA DE ARGA

Juan Antonio Etxarri Martija, 60 urte.

Jose Ismael Prieto Garcia, 43 urte.

OTSAGABIA

Eugenia Garcia Landa.

SALDIAS

Jose Ramon Erasun Micheo, 74 urte.

UHARTE

Antonio Palma Morillo, 88 urte.

LAPURDI

HAZPARNE

Marie Bidart, 77 urte.


HENDAIA

Angelita Kanpandegi-Argot, 84 urte.

Jeannette Etxarri, 79 urte.

MIARRITZE

Marie Madeleine Samson-Karakotxe, 90 urte.



JUBILATU eta edadeko

personak kalera irten ziren atzo Donostian beraientzako egoitzak eskatzeko. Gipuzkoako Diputazioaren aurrean kontzentratu ziren 'Lugarren Adinaren aldeko Koordinadorak' deituta. CARLOS VILLAGRANen argazkian ikus daitezkeen jende ugari bildu zen. Donostiako Geriatrikoak segitzea eskatzen dute edadeko pertsonak, beren iritziz, egoitza gutxi dituztelako denborapasa eta aisiarako. Arazoa larriagotu egin da Egia auzoan dagoen zaharren etxean berrixe lanak hasi dituztenetik. Pertsona edadetuak gero eta gehiago dira Gipuzkoan, baina, egoitzak ez dira nahikoak guztiak hartzeko.

Atzo hil zen, auto-istripuz, Galdakaon, 28 urte zituela



**BORJA
ARTIACH
BASTERRA**

ETBko Bideo-operatzailea

*Bihotzean tristura,
begian negarra,
tristea duk horrela
agurtu beharra.*

*Ez diagu achantzi
hire irriparra
berak emango ziguk
jarraitzeko indarra.*

Euskal Telebistaren Zuzendaritzak eta bere lankide guztiok gogotan izango dugu.

1.991ko abenduaren 7an.